

Opilaren eguna



Opilaren egunaren jatorria nekazariak **San Marko** egunean egiten zuten ibilaldia bide da. Egunsentian, hondarribiarrak, udala buru, segizioan abiatzen ziren herriko mugak bisitatzen. Herritik **Guadalupeko** baselizara eta hemendik, mendiko gailurretik, **Santa Barbara** baselizara, handik **Gaintxurizketara** eta azken honetatik, **Andrearraiga** baselizara.

Apaizek ere parte hartzen zuten eta bideko soro, larre eta lurrak bedeinkatzen zituzten eta San Markori uztak babestea erregutzen zioten.

Gaur egunean asko aldatu dira gauzak, ibilaldia ez da egiten, dagoeneko, honen ordez haurrei eta gaztei **Maidiyek (amabitxia)** opil bat oparitzen diete, **Irunen** zein **Hondarribian**. Opil hau ez da lehen bezalakoa, eta arrautzez betetako ogi baten ordez, bizkotxo goxo eta koloredun bat prestatzen da.

- 1.- Zein da opilaren egunaren jatorria?
- 2.-Herritik nora joaten ziren?
- 3.-Zeintzuk ere parte hartzen zuten?
- 4.-Nori erregutzen zioten?
5. Gaur egun hori egiten da?
6. Zer egiten da gaur?
7. Nolakoa da gaur opila?
8. Ospatzen al duzu opila eguna?
9. Nor da zure amabitxia?
10. Zer nahiago dituzu arrautza gorriak ala txokolatezkoak

11. Nola ospatzen duzu opila eguna normalean?

12. Aurten zer bait berezia egingo duzu, nahiz eta etxean egon?

13. Zergatik ez zarete animatzen bat egitera? Gero guri bidali ehhh!!!